**UDALAREN ERAKETAREN EZ OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko Udaleko Batzar Aretoan, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamabostean, eguerdiko hamabietan, bildu dira lehen deialdian Zinegotzi hautatuak, joan den maiatzaren hogeita seian egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan direnak, hain zuzen, EHBILDUko Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Maite Quintanilla Lete, Roke Akizu Aizpiri eta Jone Alberdi Alvarez jaun-andreak, EAJ-PNVko Iker Aldazabal Basauri, Verónica Galarraga Izaguirre, Ramon Gallastegi Aldazabal eta Abel Olaizola Alberdi jaun-andreak eta PSE-EE (PSOE)ko Patricia Borinaga Albéniz eta Iñaki Rubio Torrientes jaun-andreak.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du Idazkariak, Daniel Salazar Irusta, Udaleko Idazkariak, hain zuzen.

Idazkariak adierazten du batzarraldi horren helburua Udalaren eraketa dela, horrela betez martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikuluak eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikuluak agindutakoa, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Udala eratzea.
- Alkatea hautatzea eta, hala badagokio, karguaz jabetzea.

Behin Idazkariak batzarraldiari hasiera emanez gero, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira: 60 urteko Abel Olaizola Alberdi Jn.,

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO.-**

En el Salón de Actos de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, siendo las doce horas del día quince de junio de dos mil diecinueve, se reúnen en primera convocatoria, los Concejales electos que han resultado proclamados en las elecciones municipales celebradas el día veintiséis de mayo pasado, D. Unai Larreategi Azurmendi, Dña. Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Dña. Maite Quintanilla Lete, D. Roke Akizu Aizpiri y Dña Jone Alberdi Alvarez, de EHBILDU, D. Iker Aldazabal Basauri, Dña. Verónica Galarraga Izaguirre, D. Ramón Gallastegi Aldazabal y D. Abel Olaizola Alberdi, de EAJ-PNV, y Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Iñaki Rubio Torrientes, de PSE-EE (PSOE).

Asiste y da fe del acto el Secretario D. Daniel Salazar Irusta, que lo es también del Ayuntamiento.

El Secretario da cuenta de que el objeto de esta sesión es la constitución del Ayuntamiento en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 195.1 de la Ley Orgánica de Elecciones Generales, modificada por la también Ley Orgánica 8/1991 de 13 de marzo, y artículo 37.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Corporaciones Locales, conforme al siguiente orden del día:

- Constitución de la Corporación.
- Elección del Alcalde y toma de posesión en su caso.

Abierta la sesión por el Secretario se procede a formar la Mesa de Edad prevista en el artículo 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, modificada por la también Ley Orgánica 8/1991 de 13 de marzo, que queda integrada por el Concejal electo D. Abel Olaizola Alberdi, de 60 años, por ser el de mayor edad,

Zinegotzi hautatu zaharrena izanik, mahaiburu izango dena, eta 30 urteko Maite Quintanilla Lete And., Zinegotzi hautatu gazteena izanik; Daniel Salazar Irusta Jn. Idazkari gisa arituko da, berau izango delarik, baita ere, batzarraldi honetako Idazkaria.

Mahaiko Idazkariak irakurtzen ditu, banan-banan, aldez aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek egiaztatu ondoren, kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusten da.

**1.- <u>UDALAREN ERAKETA.-</u>** Aurreko operazioa egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara etorri direla hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak, hau da, gehiengo absolutu legala, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Maite Quintanilla Lete, Jone Alberdi Alvarez, Iker Aldazabal Basauri, Verónica Galarraga Izaguirre, Ramon Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Patricia Borinaga Albéniz eta Iñaki Rubio Torrientes jaun-andreak..

Ondorioz, Adineko Mahaiak Korporazioa formalki eratua aitortzen du.

**2.- <u>ALKATEA HAUTATZEA ETA, HALA BADAGOKIO, KARGUAZ JABETZEA.-</u>** Idazkariak adierazten die bertan daudenei, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

que la preside, y por la Concejala electa Dña. Maite Quintanilla Lete , de 30 años, por ser la de menor edad; actúa como Secretario D. Daniel Salazar Irusta, que es también el actuante en esta sesión.

El Secretario de la Mesa da lectura a todas y cada una de las credenciales que previamente le han sido entregadas acreditativas de la personalidad de los Concejales electos y que comprobadas por los miembros de la Mesa con las certificaciones que en su día remitió a este Ayuntamiento la Junta Electoral de la Zona, resultan conformes.

**1.- <u>CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN.-</u>** Realizada la operación anterior y habida cuenta de que concurren a esta sesión la totalidad de los Concejales electos y por consiguiente la mayoría absoluta legal, el Presidente de la Mesa de Edad procede a dar posesión a los Concejales electos, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Dña. Maite Quintanilla Lete, Dña Jone Alberdi Alvarez, D. Iker Aldazabal Basauri, Dña. Verónica Galarraga Izaguirre, D. Ramón Gallastegi Aldazabal, D. Abel Olaizola Alberdi, Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Iñaki Rubio Torrientes.

En consecuencia, la Mesa de Edad declara formalmente constituida la Corporación.

**2.- <u>ELECCIÓN DE ALCALDE Y TOMA DE POSESIÓN, EN SU CASO.-</u>** El Secretario expone a los reunidos que tal como dispone el artículo 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General modificada por la también Ley Orgánica 8/1991, de 13 de marzo, en la misma sesión de la Constitución de la Corporación ha de procederse a la elección de Alcalde, de acuerdo con el procedimiento establecido en dicho precepto y que es como sigue:

-Hautagai dira zerrenda-buru diren Zinegotzi guztiak.
-Hautesle dira bertan dauden Zinegotzi hautatu guztiak.
-Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
-Botoen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez sei boto beharko dira.
-Botazio honetan ez badu lortzen ezein hautagaik gehiengo absolutua, automatikoki aldarrikatuko da Alkate boto kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den Zinegotzi hautatua.

Informe honen ondoren eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, Alkate-gai izendatzen dira ondoko Zinegotzi hautatuak:

- Unai Larreategi Azurmendi Jn., EHBILDU koalizioaren zerrenda-buru dena.
- Iker Aldazabal Basauri Jn., EAJ-PNV alderdiaren zerrenda-buru dena.
- Patricia Borinaga Albéniz And., PSE-EE (PSOE) alderdiaren zerrenda-buru dena.

Idazkariak txartela ematen dio, zurian, hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela Alkate izateko bere botoa ematen dion Zinegotziaren izen-deiturak, eta txartela doblatuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jasoz gero, botoen kontaketa egiten da eta ozen irakurtzen dira Alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den Zinegotziaren izen-deiturak, honako emaitzarekin:

- Unai Larreategi Azurmendi Jn., bost botorekin.
- Iker Aldazabal Basauri Jn., sei botorekin.

Bertan daudenei txartel guztiak egiaztatzeko aukera ematen zaie eta, halaber, eragiketa aritmetikoa ere, ondoren txartelak puskatuz.

Botazio honen emaitza ikusirik, eta kontuan izanda Iker Aldazabal

-Son candidatos todos los Concejales que encabecen las correspondientes listas.
-Son electores todos los Concejales electos presentes.
-La elección se realiza por papeleta secreta mediante una sola votación.
-Resultará elegido el candidato que obtenga la mayoría absoluta legal de votos como mínimo.
-Si ningún candidato obtiene en esta votación la mayoría absoluta, será proclamado de modo automático Alcalde, el Concejal electo que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos.

Tras este informe y en base a los antecedentes obrantes sobre el caso, se proclaman candidatos a Alcalde los siguientes Concejales electos:

- Don Unai Larreategi Azurmendi, cabeza de lista de la coalición EHBILDU.
- Don Iker Aldazabal Basauri, cabeza de lista del partido EAJ-PNV.
- Doña Patricia Borinaga Albéniz, cabeza de lista del partido PSE-EE (PSOE).

El Secretario facilita a cada elector una papeleta en blanco con la indicación de que en la misma debe consignar el nombre y apellidos del Concejal que se vote para Alcalde y entregar las papeletas dobladas.

Recibidas todas las papeletas se procede al escrutinio y recuento de votos, leyéndose en voz alta el nombre y apellidos del Concejal propuesto para Alcalde en cada papeleta, dando el siguiente resultado:

- Don Unai Larreategi Azurmendi, cinco votos.
- Don Iker Aldazabal Basauri, seis votos.

Se invita a todos los presentes a que comprueben todas las papeletas y verifiquen la operación aritmética, procediéndose acto seguido a la destrucción de las papeletas.

A la vista del resultado de esta votación y habida cuenta de que D. Iker

Basauri Jn.k lortu duela botoen gehiengo absolutu legala, Udal honetako Alkate aldarrikatu da EAJ-PNV alderdiko Iker Aldazabal Basauri Jn. Zinegotzi hautatua.

Aldazabal Basauri ha obtenido la mayoría absoluta legal de votos, es proclamado Alcalde de este Ayuntamiento el Concejal candidato D. Iker Aldazabal Basauri, representante del partido EAJ-PNV.

Jarraian, Iker Aldazabal Basauri Jn. Zinegotzi hautatuak adierazten du onartu egiten duela Udaleko Alkate kargua eta, Alkate karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazioko Udal Batzarraren aurrean, edukitza horrek barnean hartzen dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

A continuación, el Concejal electo, D. Iker Aldazabal Basauri, manifiesta aceptar el cargo de Alcalde del Ayuntamiento y toma posesión del cargo de Alcalde ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión, con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes.

**Larreategi jaunak** hizketaldiari hasiera ematen dio esanez hainbat bider hitz egin dela egoera honi buruz. Soraluzek oinarrizko premiak ditu, Soraluzeren gainbera azken urteetan arduratzekoa da. Ardura horretatik, EH BILDUk, jada alkatetza izan zuenetik uste du egoera horri herri-logika batetik erantzun behar zaiola eta ez alderdi politikoen logikatik. Elkarlanaren bide horretan Alkarrekin Soraluze Eginez sortu zen eta ahalegin zintzoa egin zen herrian eta herriaren dinamika bat jartzeko. Halere, etsigarria da, duela lau urte zegoen egoera eta egun dagoena alderatzea. EAJ-PNV alderdiak elkarlana aldarrikatzen du baina horrela hasten den elkarlana modu okerrean hasten da, eta hori zergaitik? Larreategi jaunak uste du erantzuna argia dela. Aldiz galdera bat luzatu nahi die EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) bi alderdiei. Hain zuzen, logika horretatik zergaitik da hobea 900 eta gehiago herritarrek egindako hautua bazter batean uztea. Larreategi jn.k dio goitik etorritako erabakia dela esateak ez duela balio eta 900 herritarrei erantzun bat zor zaiela. Zergaitik alboratu dute EH BILDUk mahai gainean jartzen duen elkarlana?

**Sr. Larreategi**: Comienza su intervención afirmando que se ha tratado sobre esta cuestión en numerosas ocasiones. Soraluze tiene necesidades básicas, el declive de Soraluze en los últimos años es preocupante. Desde esa preocupación EH Bildu considera ya desde que ostentara la Alcaldía, que hay que dar respuesta a dicha situación desde una lógica municipal y no desde una lógica de partidos políticos. En esa vía de colaboración surgió Alkarrekin Soraluze Eginez y fue un intento honesto por poner en marcha una dinámica en el pueblo y del pueblo. Pero es descorazonador, comparar la situación de hace cuatro años y la actual. El partido EAJ-PNV reivindica la colaboración, pero una colaboración que empieza de esta manera empieza mal. ¿Y eso por qué? El señor Larreategi cree que la respuesta es evidente. En cambio, quiere plantear una pregunta a EAJ-PNV y PSE-EE (PSOE), a ambos partidos. Concretamente, desde esa lógica, por qué es mejor marginar a una opción que ha contado con el apoyo de más de 900 ciudadanos y ciudadanas. El señor Larreategi afirma que no sirve decir que es una decisión que viene de arriba y que se debe una explicación a esos 900 ciudadanos y ciudadanas. ¿Por qué han marginado la colaboración que EH BILDU pone sobre la mesa?

**Alkate jauna:** Lehenik eta behin eskerrak ematea nahi dizkiet alderdi sozialistako ordezkariak diren Patricia Borinaga eta Iñaki Rubiori emandako babesarengatik. Lau urteko ibilbidea partekatu dugu orain bukatu berri den legealdian eta nahiz eta alderdi desberdinetako ordezkariak izan,alderdikeriak eta pertsonalismoak alde batera utziz, helburu ama-komun batek lotu gaitu, Soraluzeko herriaren eta bertako bizilagunen alde lan egiteak, hauen arazo, kezka eta proposamenei bide emanez.
EhBildurekiko, esatea nahiko nuke nahiz eta oposizioan egon komunikazio zuzena izan dugula, mahai gainean ipini ditugun proiektu , kudeaketa eta lanen berri eman diegu puntualki, ondoren batzorde desberdinetan gaiak adostu ditugu eta azkenik osoko bilkuran aho batez onartu. Izan ditugun osoko bilkura gehienetan, onartu beharreko puntuak aho betez onartu ditugu. Eta horren adibide izan genuen azkena. Puntu guztiak aho batez onartu genituen.

**Sr. Alcalde:** En primer lugar, quiero dar las gracias a Patricia Borinaga e Iñaki Rubio, representantes del partido socialista, por su apoyo. En la legislatura recién terminada hemos compartido una trayectoria de cuatro años y a pesar de representar a partidos distintos, dejando a un lado partidismos y personalismos, nos ha unido un objetivo común, es decir, trabajar en beneficio del pueblo de Soraluze y de sus habitantes dando cauce a sus problemas, preocupaciones y propuestas.
Con respecto a EH Bildu, querría decir que a pesar de estar en la oposición hemos mantenido una comunicación directa, les hemos informado puntualmente de los proyectos, gestiones y obras nuevas que hemos puesto sobre la mesa, posteriormente hemos alcanzado acuerdos en distintas comisiones y, finalmente, los hemos aprobado por unanimidad en los plenos. En la mayoría de los plenos celebrados hemos aprobado los puntos del orden del día por unanimidad. Ejemplo de ello fue el último pleno. Aprobamos todos los puntos por unanimidad.

Alderdi politikoen arteko elkarlana lantzeaz gain herritarrei ere bide eman diegu udal kudeaketan parte hartzera. Honen adibide martxan ipini diren herri partaidetza prozesuak ditugu eta esan dezakegu mugarri bat ezarri dela legealdi honetan herri partaidetzari dagokionean. Herri mailan lehenengo herri galdeketa egin da demokrazia indarrean sartu zenetik, orain dela 40 urte. Herritarrei zuzenean udalerriko gaietan erabakitzeko eskubidea emanez.Gure asmoa etorkizunera begira, lan ildo hauek bultzatu eta sustatzea izango lirateke.

Además de promover la colaboración entre partidos políticos, hemos posibilitado que la ciudadanía participara en la gestión municipal. Testimonio de ello son los procesos de participación ciudadana puestos en marcha y podemos afirmar que esta legislatura ha constituido un hito en lo referente a la participación ciudadana. A nivel municipal, se ha celebrado la primera consulta popular desde que se implantara la democracia, hace 40 años. Otorgando a la ciudadanía el derecho a decidir en torno a las cuestiones municipales. Nuestro propósito, de cara al futuro, sería seguir impulsando y promoviendo estas líneas de trabajo.

Bestetik; Soraluzeko EAJ-rengan babesa eta konfiantza eman diguten 704 herritarrei eskerrak ematea nahiko nizkie. Babes honi esker Udaletxean 4 zinegotzi lortu ditugu. Zinegotzi hauetatik Ramon eta ni aurreko legealdiko zinegotziak gara eta oraingoan ere jarraituko dugu baina eskerrak ematea nahi dizkiet bereziki; Nagore Zabala eta Javier Garmendiari.

Por otro lado, querría dar las gracias a los 704 ciudadanos y ciudadanas que depositaron su apoyo y su confianza en el EAJ-PNV. Gracias a su apoyo logramos 4 concejales y concejalas en el Ayuntamiento. De ellos, Ramón y yo éramos concejales en la legislatura pasada y seguiremos también en ésta, pero quiero dar las gracias

Orain arte gurekin izan dira baina aurrerantzean ez dute jarraituko.Batzuek utzi egiten dute baina bi zinegotzi berri sartzen dira; Verónica Galarraga eta Abel Olaizola. Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet udal kudeaketan lan egiteko pausoa eman dutelako. Beraz lantaldea berrituta , ilusioz eta lanerako gogoz heltzen diogu legealdi berri honi.

especialmente a Nagore Zabala y Javier Garmendia. Hasta ahora han estado en el Ayuntamiento pero no seguirán en el futuro. Unos se van, pero entran una concejal y un concejal nuevos: Verónica Galarraga y Abel Olaizola. En primer lugar, agradecerles que se hayan animado a trabajar en la gestión municipal. En consecuencia, afrontamos esta legislatura nueva con grupo renovado, llenos de ilusión y de ganas de trabajar.

Ez nuke ahaztu nahi nire koadrilako lagun eta familiakoak. Jende hau egunez egun, or dago bere babesa ematen eta askotan beraiek izaten dira nire "mala ostiak" aguantatzen dituztenak.Niretako beraien babesa oso inportantea da.

Azkenik; orain berriz ere alkate bezala, herri honekiko eta bertako herritarrekiko orain lau urte hartu nuen konpromisoa berrezten dut. Egunez egun herri honen alde lan egiten jarraituko dut. Udaletxeko eta alkatetzako ateak zabalik egongo dira herritar guztientzako eta naiz eta alderdi politiko baten ordezkari izan, orain arte bezala, herritar guztien alkate izango naiz.

No quiero olvidarme de los amigos de la cuadrilla ni de mi familia. Son quienes están ahí día tras día, apoyándome, y muchas veces son quienes aguantan mis "malas hostias". Su apoyo es muy importante para mí.

Por último, y como Alcalde una vez más, ratifico el compromiso que asumí con este pueblo y con su ciudadanía hace cuatro años. Seguiré trabajando día tras día en beneficio de este pueblo. Las puertas del Consistorio y de la Alcaldía estarán abiertas a todos los ciudadanos y ciudadanas y a pesar de representar a un partido político, como hasta ahora, seré Alcalde de toda la ciudadanía.

**Borinaga andrea:** Argi utzi nahi du akordioa eta PSE-EE (PSOE)-k eman duen botoa ez dela Estatuan onartu baizik eta Euskadin eta udalerri ezberdinetako talde sozialisten babesa izan duela, Soraluze barne, non herriko militanteen babesa izan baituen.

Borinaga andreak dio bere taldeak 300 boto inguru lortu dituela, boto guztiek duten herri-balio berbera dutela gaineratuz.

Talde-lanari dagokionez dio herri-partaidetzako prozesu asko jarri direla martxan legealdian zehar eta elkarrekin lan egiteko deia egin du, gobernuan dagoena dena dela. Bere ustez, bitxia da batuketak onargarri izatea beste udalerri batzuetan baina gaitzesgarri izatea norberaren kalterako direnean. Errespetatuko badira, erabaki guztiak errespeta ditzagun. Borinaga andreak soraluzetar guztion alde gobernatzeko

**Sra. Borinaga**: Quiere dejar claro que el acuerdo y el voto emitido del PSE-EE (PSOE) no se ha adoptado en el Estado, sino que se ha tomado en Euskadi y se ha ratificado en todas las agrupaciones socialistas de los municipios, incluido Soraluze, luego ha sido refrendado por la militancia de Soraluze.

La sra. Borinaga dice que su grupo ha obtenido alrededor de 300 votos, manifestando que son igual de pueblo que los demás.

En cuanto el trabajo en equipo dice que a lo largo de la legislatura ha habido muchos procesos de participación que se han impulsado y tiende la mano para que se colabore independientemente de quien sea quien gobierne. La resulta curioso que las sumas valgan para otro municipios y se cuestionen cuando les perjudican. Si se van a respetar respetemos todas las decisiones. La Sra. Borinaga manifiesta su compromiso en

bere konpromisoa adierazi du.

gobernar para todas y todos los soraluzetarras.

**Larreategi jauna:** Galdera erantzunik gabe jarraitzen duela dio. Haiek alboratzeko arrazoia zein den galdera berriro egiten du. Galdera hori beste tokietan erantzun egiten da argudiatuz, irakurketa politiko bat egiten da, baina hemen ez. Egia da batuketaren emaitza bat dela. Aldiz, eskatzen dena da jendeari azaltzea.

**Sr. Larreategi:** Afirma que la pregunta sigue sin respuesta. Pregunta de nuevo cuál es la razón por la que se ha marginado a su grupo. Argumentando que en otros sitios se da respuesta a dicha pregunta, se hace una lectura política, pero aquí no. Es cierto que el resultado de la suma es el que es. Pero lo que se exige es que se explique a la ciudadanía.

EH BILDUk ere ahalegin berezi bat egin du ekarpenak egiteko eta egin badira, eurek eginiko aipatu ahalegin berezi horrengatik izan da.. Jendeak galdetzen du ea zergaitik gertatu den, eta argudioak falta dira. Larreategi jn.k uste du larria dela erantzun ezak sortzen duen egoera. Esaten die gainontzeko alderdieei eskuak burura ez eramateako herriarengandik tritura eta motobazio falta somatzen badute. Herritar asko eta asko alboratuta sentzitzen dira ”lepra” izango balute bezala.Horrela loturak sustatzea oso zaila da.Pena da ere Alkarreki Soraluze Eginez desagertu izana.

EH BILDU también ha hecho un esfuerzo especial para realizar aportaciones y si se han hecho ha sido por el esfuerzo especial realizado por ellos. La gente pregunta por qué ha pasado y faltan argumentos. El señor Larreategi considera que la situación surgida por la falta de una respuesta es grave. Pide al resto de partidos que no se lleven las manos a la cabeza si detectan desazón y falta de motivación entre la ciudadanía. Muchos ciudadanos y ciudadanas se sienten marginados, como si tuvieran “lepra”. Así, es muy complicado promover vínculos. Es una lástima también que Alkarrekin Soraluze Eginez haya desaparecido.

Behin Larreategi jaunaren mintzaldia bukatuta, Alkate-Udalburuak amaitutzat ematen du Udal Korporazioaren eraketa ekitaldia, akta honen buruan esandako egunean, eguerdiko hamabiak eta hogeita hamabost minutu direnean, hori guztia Idazkari gisa ziurtatzen dudalarik.

Una vez finalizada la intervención del Sr. Larreategi, el Alcalde-Presidente da por finalizado el acto de constitución de la Corporación Municipal, a las doce horas y treinta y cinco minutos del día indicado en la parte superior de esta acta, de todo lo cual como Secretario, certifico.